

TALDE PROZESUA. BOST PAUSOAK.

Biolentziarik ezean oinarritutako BAKE HEZKUNTZAko programek taldeetan giro aproposa sortzea dute helburu, eta, horretarako, bost pauso jarraitzen dituzte. Pauso horien bidez, pixkanaka taldean giro atsegina sortuko da, haurrek eta dinamizatzaileek beren gatazkak biolentzia erabili gabe konpondu ahal izateko. Elementu hauek landuko dira: autoestimua, nortasuna finkatzea, konfiantza, sentimenduak partekatzea, lankidetzaren eta komunikazioaren hobekuntza.

Lehenengo pausoa: Lasaitzea.

Bigarren pausoa: Finkatzea eta estimua.

Hirugarren pausoa: Lankidetzaren.

Laugarren pausoa: Komunikazioa.

Bosgarren pausoa: Gatazkak modu egokian konpontzea.

Horrez gain, bake hezkuntzak hainbat alderdi garrantzitsu zeharka lantzen ditu: Sormena. Gatazkaren aurrean irtenbide kreatiboak bilatzea.

Sentimenduak adieraztea.

Adierazpenak: ahozko adierazpena, adierazpen plastikoa, gorputz adierazpena, adierazpen musikala...

LASAITZEKO TEKNIKAK

Lehenengo pauso honetan, helburua pertsona bakoitza taldean eta taldearekin ongi sentitzea da (lasai, pozik, eroso sentitzea). Hori lortzeko, taldekideek lehendik ezagutu behar dute elkar. Horrela ez bada, aurkezpen dinamikak eta elkar ezagutzeko dinamikak erabiltzea komeni da, giroa lasaitu dadin.

Dinamika horiek beste gauza batzuetarako ere erabil ditzakegu: monotonia edo tentsioa hausteko, jarduera batetik beste batera pasatzeko, edo elkarrekin egindako jarduerari bati amaiera emateko.

FINKATZEA

Finkatzea eta estimua bultzatzeko dinamikei esker, eroso eta lasai sentitzeaz gain, taldekideek elkar estimatuko dute eta elkarrekiko ardura sentituko dute.

Pertsonak gure buruaz dugun irudia (autokontzeptua) beste pertsonekin ditugun harremanetan oinarriturik dago. Jolasaren bidez, haurrek harremanak izateko era berriak probatzen dituzte; beren buruaren irudi bat eraikitzen dute, pertsona gisa aurrera egiten lagunduko diena.

Gainera, estimatua sentitzea gatazkak konpontzeko lehenengo pausoa da. Gure buruagan konfiantza badugu, errazagoa egingo zaigu besteen alderdi onak ikustea, gure aurka dauden pertsonenak barne.

Estimuzko giro bat sortzea edo mantentzea ez da erraza. Ongi aukeratutako eta dinamizatutako jardueren bidez, taldekideek estimuak duen garrantzia ulertuko dute; elkarri laguntzeko eta lankidetzan aritzeko jarrerak garatuko

dituzte, taldearen barruan ez ezik, kanpoan ere bai. Bestalde, taldean sortutako giro atsegin hori taldekideak elkartzen diren bakoitzean berreskuratzea komeni da.

Zoritxarrez, gizartean goraipamenaren kontrako jarrera oso nabaria da. Besteen akats, ahultasun eta alderdi negatiboen aurrean oso "sentiberak" izaten irakatsi digute, eta suntsitzaileak izateko primeran trebatuta gaude. Horregatik, pertsona gehienak ez gara oso iaioak besteen alderdi onak antzematen eta adierazten, edo besteei gure estimua erakusten.

Bake hezkuntzaren bidez kritika negatiboak eta mespretxuak baztertzea proposatzen dizuegu, eta haiek estimuarekin eta finkatzearekin ordezkatzeta.

LANKIDETZAKO DINAMIKAK

Hirugarren pauso honetan, gizartean nagusi diren baloreen aurrean (lehiakortasuna, mesfidantza, indibidualismoa), konfiantza eta lankidetzaren indartzen saiatuko gara. Dinamika horien bidez, taldekide bakoitzak hau sentitzea lortu nahi dugu:

- Taldearen premia izatea.
- Besteekin harreman konstruktiboa eraikitzea.
- Taldearekin eta taldean egotea.
- Beste pertsonengan konfiantza izatea.
- Bakarrik lortezinak diren helburuak erdiestea.
- Besteek osatu egiten dutela eta segurtasuna ematen diotela sentitzea.

KOMUNIKAZIO DINAMIKAK

Dagoeneko hurrek taldeagan konfiantza dute, haren premia sentitzen dute eta estimatu egiten dute. Gainera, elkarlana balore positiboa dela ikasi dute. Laugarren pausoa taldean komunikazioa indartzea da.

Taldekideei orain errazagoa egiten zaie beren arazoak, kezka eta iritziak azaltzea, eta beren estimua erakustea. Dinamizatzailerak taldean benetako komunikazioa sortzen saiatuko gara. Hasteko, hitzezko edo ahozko komunikazioari ematen zaion garrantzia izugarria zalantzan jarriko dugu. Izan ere, emozioen eta estimuen adierazpena sexuaren arabera antolatuta dago, eta pertsonak sentimendu horiek modu natural, argi eta logikoenean, gorputzaren bidez alegia, adierazteko beldur dira. Horrekin ez dugu esan nahi sentimenduak eta estimuak ezin direnik ahoz adierazi; baina hitzak ez dira haiek adierazteko modu bakarra, eta komunikatzeko modu hori berez nahiko kaskarra da.

Ildo horretatik, hezitzaileok komunikatzeko modu posible guztiak erakutsi eta taldearekin landu behar ditugu. Horrela, taldekide bakoitzak eroso sentitzen den erara adieraziko du bere burua, parte hartzeko edo iritzi bat emateko hitz egin edo idatzi beharrik gabe.

Beraz, proposatzen ditugun dinamiken helburua komunikatzeko beste era batzuk badaudela erakustea da: entzute aktiboa hitzezko komunikazioan, enpatia, hitzik gabeko komunikazioa, gorputz adierazpena, adierazpen plastikoa, etab.

Esate baterako, adierazpen plastikoazko proiektio teknikari esker, haurrek eduki pertsonal kontziente nahiz inkontzienteak adieraz ditzakete: pentsamenduak, fantasiak, bizipenak... eta horrela bateratze-lanak aberatsagoak bihurtzen dira.

GATAZKEN KONPONBIDEA

Azkenean bosgarren pausora iritsiko gara, gatazken konponbidera. Hain zuzen ere, ezin dugu ahaztu bake hezkuntzaren helburu nagusia gatazkek konpontzen ikastea dela.

Ezer baino lehen, aurreko lau pausoak jarraitzearen garrantzia azpimarratu behar dugu; pauso horien bidez sortutako giroari esker bakarrik lortuko du taldeak bere gatazkek konpontzea.

Gatazkek konpontzeko dinamiketan gatazka egoerak aurkezten dira, edo gatazkekin loturiko alderdiren bat. Oso erabilgarriak dira gatazkek deskribatzeko, beren zergatiak, mailak eta elkarreraginak aztertzeko (pertsonala –soziala, kolektiboa- instituzionala) nahiz konponbide positiboak eta kreatiboak bilatzeko.

Gatazken konponbiderako jolasak ez dira jolas hutsak; esperientziak dira izatez, eta taldekideei zein taldeari gatazkek kreatiboki konpontzen ikasteko elementuak ematen dizkiete. Horri esker, taldekideek irtenbide berriak eta positiboak aurkitu ahal izango diete gatazka pertsonal, kolektibo eta sozialei, eta baita munduko gatazkei ere.

Gehienetan, gure inguruko gatazkek konpontzen direnean, alderdi guztiak ez dira pozik geratzen; hau da, gatazkek modu biolentean ebazten dira. Gure taldeetan ere errealitate hori gertatzen da batzuetan, guk nahi ez arren. Beraz, norabidez aldatzea proposatzen dizuegu.